



finantza-kudeaketaren
balantzea



2008. urteko aurrekontuko likidazioaren egoera-orri bateratua

GASTUEN AURREKONTUAREN BETETZE-MAILA SAILKAPEN EKONOMIKOA

Kontzeptua	Kap.	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak Gehitzeak/Murrizteak	Behin betiko aurreikuspena
Langileria-gastuak	1	82.602.914,00	-551.000,00	82.051.914,00
Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak	2	78.637.428,00	228.032,02	78.865.460,02
Finantza gastuak	3	3.869.000,00	0,00	3.869.000,00
Transferentzia arruntak	4	8.618.086,00	567.819,31	9.185.905,31
Inbertsio errealak	6	100.068.100,00	28.952.050,58	129.020.150,58
Kapital transferentziak	7	17.096.731,00	2.576.567,32	19.673.298,32
Finantza aktiboak	8	2.304.000,00	240.233,59	2.544.233,59
Finantza-pasiboak	9	2.819.200,00	0,00	2.819.200,00
Gastuak Guztira		296.015.459,00	32.013.702,82	328.029.161,82

DIRU-SARREREN AURREKONTUAREN BETETZE-MAILA. SIALKAPEN EKONOMIKOA

Kontzeptua	Kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak (Gehitzea / Gutxitzea)	Behin betiko aurreikuspena
Zuzeneko zergak	1	48.292.011,00	0,00	48.292.011,00
Zeharkako zergak	2	8.329.632,00	0,00	8.329.632,00
Tasak eta bestelako diru-sarrerak	3	28.718.536,00	172.863,33	28.891.399,33
Transferentzia arruntak	4	87.375.534,00	72.090,00	87.447.624,00
Ondareko diru-sarrerak	5	4.072.960,00	0,00	4.072.960,00
Inbertsio errealen besterentzea	6	48.298.663,00	0,00	48.298.663,00
Kapital-transferentziak	7	36.521.852,00	2.081.722,68	38.603.574,68
Finantza-aktiboak	8	2.168.950,00	18.330.324,73	20.499.274,73
Finantza-pasiboak	9	32.237.321,00	46.987.063,04	79.224.384,04
Diru-sarrerak, guztira		296.015.459,00	67.644.063,78	363.659.522,78

Aitortutako betebeharrak	Likidatutako ordainketak	Ordaintzekoak	Betetze-maila (%)	Aitortutako guztizkoaren %
81.032.108,04	80.500.309,11	531.798,93	98,76%	31,86%
73.821.763,00	60.461.770,83	13.359.992,17	93,60%	29,03%
2.827.440,43	2.800.528,59	26.911,84	73,08%	1,11%
8.980.837,85	6.001.996,26	2.978.841,59	97,77%	3,53%
70.937.227,41	45.634.316,22	25.302.911,19	54,98%	27,89%
11.635.928,75	8.720.719,86	2.915.208,89	59,15%	4,58%
2.288.522,35	2.249.478,70	39.043,65	89,95%	0,90%
2.798.621,62	2.775.399,64	23.221,98	99,27%	1,10%
254.322.449,45	209.144.519,21	45.177.930,24	77,53%	100,00%

Aitortutako eskubideak	Likidatutako kobrantzak	Kobratzekoa	Betetze-maila (%)	Aitortutako guztizkoaren %
47.207.612,13	44.707.883,74	2.499.728,39	97,75%	17,06%
7.110.150,91	5.799.865,37	1.310.285,54	85,36%	2,57%
29.156.754,32	26.355.917,18	2.800.837,14	100,92%	10,54%
86.280.077,70	78.183.454,33	8.096.623,37	98,66%	31,18%
5.279.733,33	4.756.297,63	523.435,70	129,63%	1,91%
37.487.730,44	37.485.657,07	2.073,37	77,62%	13,55%
47.088.087,76	37.935.598,35	9.152.489,41	121,98%	17,01%
2.137.937,76	1.496.473,48	641.464,28	10,43%	0,77%
15.000.000,00	15.000.000,00	0,00	18,93%	5,42%
276.748.084,35	251.721.147,15	25.026.937,20	76,10%	100,00%




Aurkezpena

*Udalak egindako gastu bateratua
254,3 milioi euro izan zen.*

Iruñeko Udalaren Kontu Orokorrean, 2008ko ekitaldiari dagokionez, ondokoak azpimarka daitezke:

- **Gastu bateratua** 254,3 milioi euro izan da, eta horrek esan nahi du % 21,34ren murrizketa izan dela 2007ko likidazio bateratuaren aldean. Diru-sarrera bateratuak 276,7 milioi euro izan ziren, hau da, aurreko ekitaldian baino % 0,2 gehiago.
- **Jarduneko langileei zein langile pasiboek dagozkien ordainsarien gastuak** 81 milioi euro izan ziren, hots, gastu guztiaren % 31,86. Kapitulu hau % 6 igo da aurreko urtekoarekin konparatuta, eta betetako aurrekontuan hartu duen pisua ere handitu da, gastuen guztizkoa murriztu delako, batez ere inbertsioei dagokien gastuan izandako doitzea dela medio, 2007an izandako handitze handiaren ostean.
- Ondasun arruntak eta zerbitzuen erosketak eragindako **gastu arruntak** 73,8 milioi euro dira, gastu osoaren % 29.
- **Finantza-gastuak** % 64,8 handitu ziren, interese-tasak altu ibili zirelako, 2008. urtearen tarte luze batean eta, batez ere, 2007. urtearen bukaeran, hain zuzen ere, interes-tasa aldakorra duten udal-mailegu gehienak berraztertzen diren garaian.
- **Maileguen amortizazioak** 2,8 milioi euro jo zuen, 2007an baino % 7,7 gutxiago. Finantza-zama, osorik, interesak eta amortizazioa barne hartuta, 5,6 milioi euro izan zen, aitortutako gastu osoaren % 2,2.
- **Transferentzia arruntak** 9 milioi euro izan dira, % 21,1 handitu direlarik, aurreko urtekoen aldean. Betetako gastu guztiaren % 3,5 egiten dute.
- **Inbertsio errealei** dagokien kapituluaren betetze-maila nabarmen murriztu da, zehazki, % 53,1, aurreko ekitaldikoaren aldean. Izan ere, 2006ko mailara iritsi da, 70,9 milioi euro izan delarik, hau da, egindako guztizkoaren % 27,9.
- **Kapital-transferentziek** % 11,3 egin dute gora, batez ere Alde Zaharreko kirol-ekipamenduetan eta etxebizitzetan egin beharreko jarduketarako Pamplona Centro Histórico enpresari egindako ekarpen handiagoa dela bide. Adierazi behar da entitate hori ez dagoela bateraturik, aurrekontuaren betetze-mailari dagokionez.
- **Kapital-eraketa gordinerako zuzkidurak**, hau da, Udalaren inbertsioetarakoak zein hirugarrenek egindako finantzamenduan parte hartzeak, 82,6 milioi euro izan ziren, hau da, 2007an baino 79,1 milioi euro gutxiagokoak eta 2006an izandako antzerakoak.
- **Diru-sarrera bateratuak** zenbateko handiena, 86,3 milioi euro, 4. kapituluko transferentzia arruntei zegokien. Kopuru horrek eta kapital-transferentziei dagokien 7. kapituluko 47 milioiek, batera hartuta, likidatutako guztizkoaren % 48 egin zuten.
- **Zuzeneko zergei zegozkien likidazioak** % 1,5 handitu ziren, 47,2 milioi euro jotzeraino, eta zeharkako zergen bidezko diru-sarrerak (EIOIZ, eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga) % 17,9 igo ziren, eta 7,1 milioi euro izatera iritsi ziren.
- Azkenik, **diru-sarrerak** 6. kapitulua -non ondare-besterentzeen zenbatekoa jasotzen baita- 37,5 milioi euroren betetze-maila izan zuen, hots, 2007an baino % 279,6 gehiagokoa, eta 2008an likidatutako diru-sarrera guztien % 13,5 egin zuen.
- Aurreko ekitaldian nola, mailegu berria kontratatu zen, eta **finantza-pasiboak** 9. kapituluaren betetze-maila 15 milioi eurorena izan zen, guztira 79,2 milioi euro jo zuen finantzamendu-mota honen behin betiko aurrekontuaren gainean, hau da, 2008an likidatutako diru-sarrera guztien % 5,4.





Aurrekontuaren betetze-maila

Iruñeko Udalak 197.275 bizilaguneko populazioa zuen 2008ko urtarrilaren 1ean, 2009ko martxoaren 25eko 36. NAOn argitaratutako emandako datu ofizialen arabera. Populazio-datu horiek erabili izan dira aurrekontu-adierazleak eta ratioak kalkulatzeko. Bere jarduna garatzeko, Udalak ondoko erakunde autonomo eta entitateak sortu ditu:

- **Administrazioko sektore publikoa** deitu daitekeen barruan, hau da, administrazio-zuzenbidearen arauetara dagoen sektorearen barnean, Iruñeko Udaleko Hirigintza-Gerentzia eta Iruñeko Udaleko Haur Eskolak ditugu.
- **Enpresa publikoen sektorea:** bertan kokatzen dira Udalak besterik parte hartzen ez duen enpresak, hala nola Comirufia, Pamplona Centro Histórico eta Udal Laguntza Etxean SA-Asimec, Udala partaide nagusi dutenak, adibidez, Asociación Navarra de Informática Municipal-Animsa eta Mercairufia, eta Biltzar Bulegoa edo Convention Bureau izenekoa, non Udalak parte txiki bat baino ez baitu. Partaidetzei buruzko datuak koadro batean laburbildu dira. Sozietate horiek guztiak merkataritza-lege orokorrei daude lotuta, kontabilitateari dagokionez, baina horrek ez du galarazten haien urteko

kontuak (partaidetza nagusia den kasuetan) Udalaren Kontu Orokorrean sartzea.

- Aurrekoetz gain, Udalak bi **fundazio** ditu, Gayarre Antzokia-rena eta Erruki Etxearena. Horiek, fundazio direnez, estatutu juridiko berezia daukate.

Kontu bateratuan ondokoak sartzen dira: Udalaren eta bere bi erakunde autonomoen likidazio bateratua eta egoera-balantze bateratua, non, hiru entitateekin batera, Comirufia, S.A., Pamplona Centro Histórico, S.A., eta Udal Laguntza Etxean SA-Asimec sartzen baitira. ANIMSA eta Mercairufia, S.A. eranskin gisa jasotzen dira Kontu Orokorrean. Bi fundazioen kontuak ere sartzen dira Kontu Orokorrean, Osoko Bilkurak onesteko, Comptos Ganbarak emandako gomendioei jarraiki.

Hona Alkatetzak 2008ko ekainaren 6ko Ebazpenaren bidez onetsitako Udalaren zein haren erakunde autonomoen aurrekontu-likidazioaren betetze-mailari buruzko datu adierazgarriak:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak
Udala	231.223.469,24	248.815.784,05
Hirigintza Gerentzia	29.558.916,33	34.608.456,47
Haur Eskolak	7.274.241,40	7.058.021,35

Hona entitate nagusiak haren erakunde autonomoei egindako ekarpenak, transferentzia arruntez zein kapital-transferentziaz bezainbatean:

Kontzeptua	Hirigintza Gerentzia	Haur-eskolak
Transferentzia arrunta	0,00	5.023.253,60
Kapital-transferentziak	2.600.618,01	320.000,00
Guztira	2.600.618,01	5.343.253,60

Hirigintza Gerentziaren kontuak Gerentziaren Kontseiluak onetsi zituen, 2008ko martxoaren 25ean. Ikuskatu dira, eta txostenak aldeko iritzia jaso du, ondarearen eta finantza-egoeraren irudi fidelaren isla dagokionez. Aurrekoa gorabehera, txostenean isla dute Udalaren kontuetarako garrantzitsuak diren bi egoera, zeinak jada islaturik baitzeuden aurreko ekitaldietako ikuskapen-txostenetan:

VINSARI eta Nafarroako Gobernuari saldutako lursailetakoa behin betiko urbanizazio-kuotei dagokionez, etorkizunean lursail horiei lotutako poligonoetatik saldo defizitarioa sor daiteke -orain ebaluatu ezin daitekeena-, zeina Udalak ordaindu beharko baitu. Birpartzelazio-proiektu batean egindako obrei dagokionez, epai batek urbanizazio-gastuak murriztera behartzen du, bide-sistemako obrei dagokionez. Demandatzaileari jadanik

0,7 milioi euro itzuli zaio, eta ordaintzeko daude 1,283 milioi euro. Kopuru hori Udalaren transferentzien bidez ordainduko da.

Haur Eskolen Erakunde Autonomoaren kontuak haren batzordeak onetsi zituen, 2008ko martxoaren 25ean. Horiek ere ikuskaturik daude. Ikuskapen-txostenak aldeko iritzia eman

zuen, kontuei eta ekonomia- zein finantza-jardunari buruz legezketasun-printzipioarekin bat, aurrekontuez, kontratazioaz eta langileriaz bezainbatean.

Hona datu esanguratsuenak, Udala partaide duten sozietatei buruz:

Izena edo izen soziala:	Jarduera nagusia	Zuzeneko partaidetza (%)	Ikuskapena
Comirufña, S.A.	Txikikazko merkatuak	%100,00	Bai
P.C.H., S.A.	Hirigune historikoko hirigintza	%100,00	Bai
Asimec, S.A.	Etkez etxeko laguntza	%100,00	Bai
Mercairufña, S.A.	Handizkako merkatua	%51,00	Bai
Animsa, S.A.	Udaleko Informatika	%78,06	Bai
Pamplona C.B., S.L. biltzar-bulegoa	Biltzarren kudeaketa	%31,49	Bai

Enpresa	Emitza-kontua (gastuak)	Emitza-kontua (diru-sarrerak)	Emitza ekonomikoa
Comirufña	503.489,19	567.008,73	63.519,54
P.C.H., S.A.	1.428.457,67	1.451.311,23	22.853,56
Mercairufña	1.285.318,06	1.562.054,46	276.736,40
ANIMSA	8.332.292,00	8.424.110,00	91.818,00
ASIMEC, S.A.	533.059,07	551.000,00	17.946,93

Comirufña, S.A. sozietatek irabaziak zituela itxi zuen 2008ko ekitaldia, zehazki, 63.519,54 euro, jardun arruntak eraginda. Ikuskapen-txostenean aldeko iritzia jasota dago, kontuei buruz. Kontuak Administrazio Kontseiluak aurkeztu zituen 2009ko martxoaren 23an, eta akziodunen batzar nagusiak 2009ko apirilaren 30ean onetsi zituen.

Pamplona Centro Histórico, S.A. sozietateak Administrazio Kontseiluak egindako kontuak aurkeztu zituen 2009ko martxoaren 27an, behar bezala ikuskaturik eta aldeko iritzia zutela, islaren fideltasunari eta legezketasunaren betetzeari dagokionez. 2008an eragindako mozkinak 22.853,56 euro dira. Kontuak onesteko akziodunen batzar nagusia 2009ko maiatzaren 28an egin zen.

Mercairufña, S.A. sozietateak emitza positiboa zuela itxi zuen ekitaldia, zeinak, zehazki, 276.736,40 euro jo baitzuen, gehien bat, jarduera arruntetatik eratorriak. Ikuskapen-txostenean aldeko iritzia jasota dago, kontuei buruz. Kontuak

Administrazio Kontseiluak aurkeztu zituen 2009ko otsailaren 26an, eta akziodunen batzar nagusiak 2009ko maiatzaren 11n onetsi zituen.

ANIMSAk aurkeztutako ekitaldi-emitza ere positiboa da: 91.818 euro. Jardun arruntak eragindako mozkinak 84.623 euro dira. Finantza-emitzak positiboak izan dira, eta 7.195 euro jo dituzte. ANIMSAren kontuei buruzko ikuskapen-txostenak aldeko iritzia jaso zuen, islaren fideltasunari dagokionez. Kontuak Administrazio Kontseiluak aurkeztu zituen 2009ko martxoaren 27an, eta akziodunen batzar nagusiak 2009ko maiatzaren 20an onetsi zituen.

Asistencia Municipal en Casa, S.A. sozietatearen ekitaldi-emitza positiboa izan zen, 17.946,93 euroekin. Ikuskapen-txostenak aldeko iritzia jaso zuen kontuen isla fidela denaz bezain batean. Administrazio Kontseiluak 2009ko martxoaren 24an aurkeztu zituen kontuak, zeinak akziodunen batzar nagusiak 2009ko ekainaren 9an onetsi baitzituen.



Fundazioei dagokienez, hona haien gastu eta diru-sarrerei buruzko datuak:

Fundazioa	Emaita-kontua (gastuak)	Emaita-kontua (gastuak)	Emaita ekonomikoa
Gayarre Antzokia udal-fundazioa	2.544.228,65	2.553.235,54	9.006,89
Erruki Etxea	15.877.799,73	16.541.447,78	663.648,050

Gayarre Antzokia udal-fundazioaren kontuak 2009ko apirilaren 29an onetsi zituen patronatu-batzordeak. Ikuskapen-txostena aldekoa izan zen. Ekitaldiko emaitza positiboa diru-sarrerara finantzarioek eragin zuten batez ere.

Erruki Etxearen kontuak 2009ko apirilaren 28an aurkeztu zitzaizkion Udalari. Bertako mozkinak 663.648,05 euro jo zuten. Ikuskapen-txostena aldekoa izan zen, salbuespen batekin, zeina Fundazioari sozietateen gaineko zergaren likidazioa eskatzeko posibilitateari baitagokio. Baina txostenak berak dioenez, Ogasun Publikoak berak ez dio eskatu entitateari zerga hori.

Mankomunitateak. Iruñeko Udala Iruñerriko Mankomunitatearen parte da. Mankomunitate horren bitartez ematen ditu uraren ziklo osoari (ur-hornidura eta behe-saneamendua), hiri-hondakin solidoen tratamenduari eta hiri-garraioari (autobus- eta taxi-zerbitzuak) dagozkien zerbitzuak.

2008an ez da gasturik egin, Iruñeko Udalaren aurrekontuan, hiri-garraioa finantzatzeko. Behin 2005eko irailaren 1ean Udalbatzaren Osoko Bilkurak taxi-zerbitzua kudeatze aldera Iruñeko Udala Mankomunitatean sartzeko erabakia (13/CC) hartuta, xedatuta gelditu zen lizentzia berriak esleitzeagatik jasotako diru-sarrerek finantzatzeko zuzentza Iruñeko Iruñerriko Garraioaren Plani egin beharreko ekarpenak, diru-sarrerara horiek agortu arte.

Partzuergoak. Suteak itzaltzeko zerbitzu publikoa Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren bitartez gautzen zen. 2006ko uztailearen 4ko Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren bidez (19/CP), Iruñeko Udalbatzak Nafarroako Gobernuarekin batera izenpetu beharreko agiria onetsi zuen, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoa desegin eta, horrekin batera, bi erakundeen menpeko zeuden zerbitzuak Nafarroako Larrialdietako Agentzian sartzeko.

Aurrekontua eta herritarrak

2008an, herritar bakoitzeko diru-sarrera 1.403 euro izan zen, eta gastuak, berriz, 1.289 euro jo zuen. Diru-sarrera guztien ia bosten bat udal-eskumeneko zergetatik etorri zen, eta horrek esan nahi du pertsona bakoitzak, batez beste, 275 euro jarri zituela.

Bestetik, modu bateratu batean hartuta, zerbitzuak eman, jarduerak egin eta jabari publikoa erabiltzagatik kobratutako tasa eta prezio publikoen, ondasun higigarri eta higiezin salmentaren, ondareko diru-sarreraren eta aurrerakin zein mailaguen itzuleren bitartez, 375 euro eskuratu ziren biztanleko. Tranferentzia arruntek (Hiriburutza Agiria, Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetako partaidetza eta beste zenbait ekarpen) biztanle bakoitzeko eragindako diru-sarrera 437 euro izan ziren. Biztanleko beste 239 euro jaso ziren, kapital-transferentziak eta kapitaleko bestelako diru-sarrerak zirela medio.

Egindako gastua osorik hartuta, Iruñeko horren % 62,4 -hau da, 804 euro, biztanleko- komunitate-ongizatearekin zerikusia zuten gastuak estaltzeko erabili zen: hirigintza, ingurumena, hezkuntza, kultura, kirola eta abar. Gastu horren atzetik dator segurtasunean, babesean eta gizarte-sustapenean egindakoa, zeina gastu osoaren % 16,9 baita, hots, 216 euro pertsona bakoitzeko.

2008ko finantza-zama 29 euro izan da, biztanleko. Zor bizia biztanleko 304,4 euro ziren, 2008ko abenduaren 31n, hain zuzen, 2007koa baino 3,7 euro gutxiago, biztanleko.

Likidazioa

Atal honetan Iruñeko Udalari, Hirigintza Gerentziari eta Haur Eskolei dagokien likidazio bateratua aztertzen da.

Ezaugarri orokorrak eta aurrekontu-aldaketak

2008ko udal-aurrekontua 2007ko abenduaren 19ko osoko bilkuran onetsi zuen hasiera batez Iruñeko Udalbatzak.

Diru-sarreraren hasierako aurrekontu bateratua (Udalaren, erakunde autonomoen eta Udalaren erabateko partaidetza duten sozietateena) 296.770.493 euro izan ziren. Gastuen aurrekontua, ordea, 296.681.843 euro ziren.

Comirufña, S.A. eta Pamplona Centro Histórico, S.A sozietateak alde batera utzirik -horiek ez baitira bateratzen, aurrekontu-betetzeari dagokionez- diru-sarreraren eta gastuen hasierako aurrekontuaren guztizko bateratua 96.015.459 euro izan ziren (behin 3 entitateen arteko bateratze-doiketak kenduta). Udalaren hasierako aurrekontuak 264.081.929 euro jo zuen, Hirigintza Gerentziarenak, 39.815.223 euro, eta Haur Eskolenak, 7.702.030 euro.

2008ko ekitaldian barna, hainbat aldaketa garrantzitsu egin ziren, Udala osatzen duten entitateen aurrekontuan, aurrekontua aldatuz joan ziren beharren arabera egokitze aldera. Aldaketa guztiek batera hartuta 32 milio euro handitu zuten aurrekontu bateratua, gastuen egoera-orrietan. Behin betiko aurrekontu bateratuak 328.029.161,82 euro jo zituen, diru-sarreretan, eta 363.659.522,78 euro, gastuetan. Diferentzia, 35.630.360,96 euro guztira, Udalak 2007ko abenduaren 31n gastu orokorretan zeukan diruzaintzako gerakin negatiboa finantzatzeko sortutako aurrekontu-baliabideen soberakinari dagokio. Hori 2008ko abenduaren 19ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez onetsi zuen Udalbatzak.

Haien tamaina dela-eta garrantzi handiena izan zuten aldaketak -hots, 2007ko aurrekontutik ekarritako kreditu-geldikinen sarrerei nahiz, 2007ko abenduaren 31ko gastu orokor negatiboetan, diruzaintzako geldikinaren aplikazioari dagozkienak- ondoan daude zehatzago azalduta.

Gastuen aurrekontuaren betetze-maila

2008ko ekitaldiko aitortutako betebeharrak bateratuak 254,3 milioi euro izan ziren, hau da, 328 milioi euro jo zuten behin betiko aurrekontu bateratuaren % 77,53. Hau izan da zehazki betetze-maila, bateratutako entitate bakoitzean:

Udala	%82,13
Hirigintza Gerentzia	%52,77
Haur-eskolak	%94,45

Gastua kapituluka sailkatuta, parterik handiena langileria gastuak biltzen dituen 1. kapituluari zegokion, horrek gastuaren % 31,9 hartu baitzuen, 80,5 milioi euro guztira. Horren ostean, 2. kapitulua dator, ondasun arruntei eta zerbitzuei dagozkien gastuak jasotzen dituen alegia, non gastuaren % 29 egin baitzen, 60,5 milioi euro erabilita, bai eta inbertsio errealak ere, zeinek 45,6 milioi euro erabilita gastu osoaren % 27,9 egin baitzuten.

2008an ekitaldi arrunteko ordainketak 209,1 milioi euro izan ziren, 45,2 milioi euro ordaintzeko gelditu zirelarik. Horrenbestez, betebeharren edo gastuen betetze-maila % 82,24koa izan zen.

Eginkizun-multzoen arabera aztertuz gero, gizarte-izaerako ondasun publikoak -hots, hirigintza, kultura, hezkuntza, kirola, ingurumena eta osasuna- ekoizteak ekarri zuen gastu-portzentaje handiena, hain zuzen, gastu osoaren % 62,39. Horren ostean, gizarte-babesari eta -sustapenari dagozkien zerbitzuak -gizarte-zerbitzuak alegia- zetozen, % 16,86ko gastuarekin, eta babes zibilari eta herritarren segurtasunari dagozkienak, horiek gastu osoaren % 9,38 izan zirelarik. Hirugarren multzo horrek izan zuen, hain zuzen ere, betetze-mailarik handiena.



Diru-sarrerren aurrekontuaren betetze-maila

Aitortutako eskubide bateratu garbiak 276,7 milioi euro izan ziren, hau da, behin betiko aurreikuspenen % 76,1. Hala ere, kontuan hartuta Diruzaintzako geldikinari dagokion 87. artikuluko aurreikuspenak ez direla likidatutako zenbateko bilakatzen, adierazgarriagoa da behin betiko aurrekontuari artikuluko horretako aurreikuspenen zenbatekoa kenduta kalkulaturako ratioa: hala eginez gero, diru-sarrerren aurrekontuaren betetze-maila % 80,11 izatera iritsi zen.

Bateratutako entitateetatik bakoitzaren aurrekontuaren betetze-maila, betiere guztizko aurreikuspenetan diruzaintzako geldikinari dagozkionak sartu gabe, hau izan zen:

Udala	%79,64
Hirigintza Gerentzia	%81,34
Haur Eskolak	%91,64

Diru-sarrerren osaerari dagokienez, transferentzia arruntek egin zuten parterik handiena, diru-sarrera guztien % 31,18 izan zirelarik. Atzetik zuzeneko zergak etorri ziren, %17,06 izan zirela, gero kapital-transferentziak, % 17,01arekin, eta azkenik inbertsio errealeen besterentzeak, zeinak % 13,55 izan baitziren.

Zergek, zuzenekoek nahiz zeharkakoek, Udalak eskuratutako guztizko diru-sarrera likidatuen % 19,62 egin zuten.

Betetze-mailari dagokionez, 3., 5. eta 7. kapituluuetako diru-sarrerren aurreikuspenak gainditu ziren.

Aurrekontu arrunteko diru-bilketa likido bateratua 251,8 milioi euro zen, eta 25 milioi kobratzeko gelditu ziren. Horrenbestez, eskubideen gauzatze- eta kobraketen betetze-portzentajea, likidatutako zenbatekoen gainean, % 90,96koa izan zen.

